

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2016ko maiatzaren 12an aurkeztuko du

Eija-Liisa Ahtila: *Deikundea*

Eija-Liisa Ahtila: *Deikundea*

- Noiz: 2016ko maiatzak 12–2016ko abuztuak 28
- Komisarioa: Lucía Agirre
- Film & Video aretoa (103)

2016ko maiatzaren 12tik abuztuaren 28ra, Guggenheim Bilbao Museoak Eija-Liisa Ahtila-ren *Deikundea* (*The Annunciation – Marian Ilmestys*, 2010) artelana aurkezten du estreinakoz Espainian. Hau izango da Film & Video aretoan programatzen den zazpigarren artelana bideo-artelanak, bideo-instalazioak eta irudi mugikorrek bertan jartzeko 2014an inauguratu zenetik.

Eija-Liisa Ahtila (Hämeenlinna, Finlandia, 1959) artistak *Deikundea* filmatu zuen elurtutako Aulanko erreserba naturalean, Finlandiako hegoaldean, 2010eko negu hotz-hotz eta elurtsuan. Hiru proiektioz osatutako instalazioa da; horietan, Lukasen Ebanjelioaren (Lk 1,26–38) pasarte ezagun bat agertzen da, Deikundearena; ikonografia kristauaren gairik garrantzitsuetako bat da eta, gainera, perspektiba behar bezala lehenengoz erabili zuten antzinako pintura batzuek pasarte hori irudikatzen dute.

Lanaren lehen zatiak dokumental itxura du, estilo objektiboa; kamera digitalez grabatu zen. Hainbat emakume Deikundearen unea antzezteko prestatzen ari direnean hasten da; une horretan, Gabriel goiaingeruak Mariari Jainkoaren seme bat izango duela azaltzen dio. Goiaingerua antzezten duena hegaz egiten saiatzen dela ikusten dugu, eta emakumeek eztabaidatu egiten dute jokatu beharko dituzten rolen inguruan; Mariarena egiten duen aktorea, berriz, astoan ibiltzen ikasten ari da. Gainera, erakutsi ere egiten dira pinturen arabera, Mariak goiaingeruarekin topo egin zuenean izandako erreakzioen antzezpeneak. Entseguen amaieran, artistak erregistroa eta teknika aldatzen du eta, 35 mm-tan grabatutako irudien bidez, goiaingerua idi-bihotzen ohandze baten gainean hegaz erakusten du, beirazko leiho zabal batetik sartzen da aktorearen espazio errealerara eta, une horretan, aingeruak mundu arruntean muturra sartzen du.

Antzezlana Andre Mariarena egiten duen aktorearen irudi idiliko batez amaitzen da: asto batek lagunduta dago eta ez darama soingaineko urdin bizia (Errenazimenduko madonnak gogora ekartzen duena); bitartean, atzealdean Townes Van Zandt-en *No Place to Fall* abestia entzuten da. Alde handia dago kanpoaldeko paisaia elurtuaren eta barrualdeko eszenen artean; azken horiek artista baten estudioaren antzera itxuratutako plato batean filmatu zituzten, bertan eraiki baitzuten Deikundearen gertakizuna antzezteko dekoratua.

Aurrez gidoi bat zegoen arren, filmaketak irau bitartean, ekintzak eta pertsonaien elkarrizketak interprete bakoitzari egokitu zitzaizkion. Haietako bi salbu, gainontzeko antzezleak amateurrak dira, eta gehienak Helsinkiko Deaconess Institutuaren emakumeari laguntzeko zerbitzuaren erabiltzaileak dira.

Animalia aktoreak ondorengoak dira: bele drezatu bat, bi asto eta hegaztien abeletxe bateko uso mezularien talde bat.

Deikundean, Jacob von Uexküll biologo estoniarraren (1864–1944) ikuspegia agertzen da: horren arabera, izaki bizidunak aldi berean eta elkarrekin bizi dira. Ideia horrek, ordea, baditu muga batzuk, existitzea besteekin eta elkarrekin bizitzea esan nahi baitu. Natura eta animaliak errespetatzen dituen munduaren ikuspegi post-humanista bat da. Kontzeptu hori mirarien nolakotasunaren azterketari eta hautematearen zein ezagutzaren aukerei ere aplikatzen zaie. Antzezlanean, aktoreek alderdi sakratua eta alderdi gizatiarra birdefinitzen dute, jainkotiaria denaren eta animaliazkoa denaren bitartez.

Eija-Liisa Ahtila

Eija-Liisa Ahtilak zinematografia ikasi zuen London College of Printing-en, UCLAn eta Los Angeleseko American Film Institutuen. 1990n, Tampere-n (Finlandian), urteko artista gaztearen saria jaso zuen eta, harrezkero, hainbat sari irabazi ditu, tartean direla ikus-entzunezko kultur lorpenen AVEK-a (1997), Edstrand Art Price (1998), DAAD beka (1999), 48. Veneziako Bienaleko ohorezko aipamena (1999), Europako arte garaikideko Vincent Van Gogh saria (2000) eta Central Committee for the Arts-en bost urteko beka bat (2001), baita Artes Mundi Prize ere (2006). Oraindik orain, Eugen Printzearen Domina eskuratu du bere ibilbide artistiko nabarmenagatik (2009).

Documenta XI (2002) eta Veneziako 50. Bienalean (2005) parte hartu du, baita 5. Moskuko Bienalean ere (2013). Bakarkako azken erakusketa garrantzitsuenen artean, ondorengoak aipa ditzakegu: Albright-Knox Art Gallery, Buffalo-n, AEBn (2015–16); Moderna Museet-en, Estocolmon (2012); Jeu de Paum, Parisen; eta Kunstsammlung Nordrhein-Westfalen, Dusseldorf-en (2008).

Film & Video aretoa (103. aretoa)

Film & Video aretoa bideoarteari, bideoinstalazioari eta irudia mugimenduan darabilten lanei eskainitako gunea da; bertan biltzen dira nola Guggenheim museoetako artelanak, hala nazioarteko beste bilduma batekoak. Areto honetako programazioa 2014ko martxoan hasi zen Christian Marclayren *Erlojua* (*The Clock*, 2010) instalazioaz; ondoren, berriz, Ragnar Kjartansson artista islandiarrak *Bisitariak* (*The Visitors*, 2012) instalazioa aurkeztu zuen; 2014ko urritik 2015eko martxora, Rineke Dijkstra-ren *The Krazyhouse* (*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee*) *Liverpool, UK* bideoinstalazioa ikusteko parada izan genuen; urte horretako martxotik eta uztaile arte, *Hariaren ibilbideak* (*Thread Routes*, 2010) deitutako Kimsooja artista kontzeptualaren seriea ikusi ahal izan genuen. Hurrengo artelana, Shahzia Sikander-en *Paralajea* (*Parallax*, 2013) izan, 2015eko azaro arte ikusgai izan zena; azkenekoa *Ezagutzen ez denaren hodeia* (*The Cloud of the Unknowing*) izan da, Singapur-eko Ho Tzu Nyen artistarena, abenduaren 3tik 2016ko apirilaren 24ra ikusgai egondakoa.

Azaleko irudia:

Eija-Liisa Ahtila

Deikundea (Marian Ilmestys – The Annunciation), 2010

Goi-definizioko eta 5.1 soinuko hiru kanaleko instalazioa

28 min 25 s

Artistaren eta Marian Goodman Galleryren eskaintza

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa-eremua).

Prensa irudiak:
Eija-Liisa Ahtila: *Deikundea*
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Eija-Liisa Ahtila

Deikundea (Marian Ilmestys – The Annunciation), 2010

Goi-definizioko eta 5.1 soinuko hiru kanaleko instalazioa

28 min 25 s

Artistaren eta Marian Goodman Galleryren eskaintza



Eija-Liisa Ahtila

Deikundea (Marian Ilmestys – The Annunciation), 2010

Goi-definizioko eta 5.1 soinuko hiru kanaleko instalazioa

28 min 25 s

Artistaren eta Marian Goodman Galleryren eskaintza



Eija-Liisa Ahtila

Deikundea (Marian Ilmestys – The Annunciation), 2010

Goi-definizioko eta 5.1 soinuko hiru kanaleko instalazioa

28 min 25 s

Artistaren eta Marian Goodman Galleryren eskaintza



Eija-Liisa Ahtila

Deikundea (Marian Ilmestys – The Annunciation), 2010

Goi-definizioko eta 5.1 soinuko hiru kanaleko instalazioa

28 min 25 s

Artistaren eta Marian Goodman Galleryren eskaintza

